

## **KIROLDEGIKO “KIROL MONITORE ETA MANTENIMENDURAKO LANGILEEN” LAN-POLTSA OSATZEKO DEIALDI PUBLIKOA**

### **Deialdiaren xedea.**

Udal kirol instalazioetan denboraldi baterako sor daitezkeen pertsonal beharrei erantzuteko, lehiaketa-oposaketa sistemaren bidez, lan-poltsa bat eratzea.

### **Eginkizunak**

Mantenimenduko gimnasia. Kirol laguntzailea. Kirol instalazioetako mantenimendua eta garbitasuna. Bazkideei buruzko gestio lanak egitea.

### **Hautagaiaren baldintzak.**

- a) Eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik 18 urte beteta izatea.
- b) Lanpostuko eginkizunen burutzapena eragotziko lukeen gaixotasun edo akats fisikorik ez pairatzea.
- c) Eskola agiria edo baliokidea izatea.
- d) Euskaraz lan egiteko gaitasuna duela egiaztatatu behar da hautapen prozesuan.
- e) Udalerriko kirol instalazio guztietara joan ahal izatea bermatzea.

### **Eskaerak.**

Zestoako Udalean aurkeztu beharko dira, iragarkia Udaletxeko iragarki taulan argitara eman eta hurrengo egunetik hasita ondorengo hamar egun naturalen barruan, goizeko 9:00etatik 13:00 orduetara bitartean. Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2016ko otsailak 5.**

### **Besterik.**

Oposizio-lehiaketaren oinarriak Zestoako Udal bulegoetan eskuratu ahal izango dira.

Zestoa, 2016ko urtarrilak 26  
ALKATEA

